



ALKARREKIN

Uztaila/Agorrila/ 1990 - Idazkaritza: 8, quai Galuperie-64 100- BAIONA.-

GURE NAHIA HERRIRATU

Harritzekoa balukete abertzale bu-
ruzagi askok ikusiz jendea zoin urrun den
oino abertzalegotik gure herri eta hiri
gehienetan Euskal Herri iparraldean.

Alta, zonbat gertakari, zonbat mintzal-
di, paper, kasetak eta gaineratiko ez dugu
ikusirik Aintzina, Enbata, E.H.A.S. eta Herri
Talde-en garaitik hugarat 50 urtez!

Eta zenbat lan ez da egin kultura
sailean berean, dela pertsu, antzerki, kantu,
liburugintza, dantza eta beste kultura hut-
sezko agerbidetan !

Halere bi milagarren urteari buruz
goazen huntan herritarren %10-12 ko hori
baizik ez dugula euskal abertzalegoaren
alde iparraldean ez ote da aski harrigarri?

Egia, haatik, azken urte hautan, iduriz,
aintzinamendu zerbait nabari dela han edo
hemen, bainan oino zenbat bide egiteko !

Bainan bide hori nork nahiko du egin
urratsez urrats, lana elgarrekin apailatuz,
alkarren baztertzen ibili gabe beharrena
ahantziz eta berdin zangopilatuz. Beharrena
ez baita katixima hertsia idaztea eta
horien sinetsaraztea herritarren aburuz
xehe edo zentzu argiaren kontra bainan huri
hurbil eta guziz iziarazi edo lotsarazi
gabe aintzinatzea egin ahalako alkartasu-
nean eta alkarren konfiantzan.

Askok baitiote abertzale buruen artean: Herrian eta plazan dela korripiloa, uzurtasuna,
gogo eria edo lausotasuna... zer liteke noiztenka bederen aitortzea egiazko korripiloak
eta berdin gogo nahasiak abertzaleen kapitainetan ere gerta ditezkeela ez baita harritzeko
Herriak ez duela hain errex eta argi sinesten ahal euskal abertzalegoan. Guziz etsipena eta
zatiketa **badarizka!**

M.P.



un nouveau Pouvoir à GASTEIZ ?

Nous devrions savoir très bientôt la
date des prochaines élections autonomiques
de la Communauté Autonome d'Euskadi. Tous
les observateurs ont les yeux rivés sur
Ajuriaenea où on n'écarte pas l'hypothèse

d'un gouvernement d'Union Nationale grâce à
une entente entre nationalistes et abertzale
basques. Idée bien chère à E.A.

Mais Madrid laissera-t-il faire ? ?